

Negoiazio kolektiboaren erreforma: Monopolio sindikala, txirotzearen truke

“HEGO EUSKAL HERRIAN NEGOIAZIO KOLEKTIBOA EGITEKO ESKUBIDEA EXIJITZEN DUGU”

*ELAko Nazio Batzordearen Ebazpena
2011.02.21*

0 Sarrera

Langile-klasea krisi ekonomikoa larrutik ari da ordaintzen. Hiru datu aski dira egoera islatzeko:

- Hego Euskal Herrian langabezia bikoiztu egin da, 2010 amaieran %11,1eraino iritsi delarik, eta Europako Batasuneko batez besteko %9,4tik gaindi. Berton Europako edo munduko beste aldeetan baino askoz enplegu gehiago suntsitu da, krisiaren eragina (BPGarekiko) horren handia izan ez den arren.
- Kontratuetan prekarietatea arau orokorra da. Iaz erregistratutako kontratuen %93 aldi baterakoak izan ziren, hots, aurreko urteetan baino portzentaje handiagoa. Erreforma laborala, zeinaren kontra greba orokorra deitu baikenuen, kaleratzea merkatzeko eta errazteko baliatu zuten, guk salatu genuen legez, eta ez aldi baterako enplegu tasa gutxitzeko.
- Langabeen %36,6ak ez du langabezia prestazio bat ere jasotzen. Portzentaje hau gero eta handiagoa da, eta datozen hileetan are gehiago haziko da. Babesa duen askok diru-sarrera oso urriak jasotzen ditu, bizimodu duin bat egiteko aukerarik ematen ez dutenak.

Gobernuek erabaki dute krisia kudeatzeko finantza-kapitalen eta enpresa handien exigentziei men egitea. Botere ekonomikoek –zeinak kontrol demokratikorik funtsezkoenak saihesten dituzten– eurek eragindako krisiaren kostua bete-betean langile-klaseak ordain dezala exijitzen dute. Eta botere politikoa prest dago bizi- eta lan-baldintzak murrizteko eta urte askoren buruan lortutako eskubide laboral eta sozialak ahultzeko.

Xede horixe dute politika ekonomiko eta sozialean hartzen dituzten erabakiek, besteak beste, gobernuen aurrekontu-murrizketek (Madril, Gasteiz, Iruñea eta aldundietan), krisi ekonomikoa are latzagoa egiten dutenak. Aurrekontuok kalte izugarria egiten dute, gastu publikoa murrizten baita osasunean, hezkuntzan, etxebizitzan edota gizarte-zerbitzuetan, eta noski, enplegua suntsitzen baita, arlo publikoan zein pribatuan.

Erabakiok hartzen dituzten bitartean, beste neurri batzurekin krisia eragin dutenei mesede egin nahi zaie: banketxeentzako esku publikoak emandako egundoko dirutzak; aurrezki-kutxen pribatizazioa; argindarraren eta beste energien tarifa igoera itxuragabea, eta enpresek ordaindu beharreko zerga nahiz kotizazioen jaitsiera.

Aipamen berezia egin behar da Itun Sozial eta Ekonomikoaren eskenaratzeaz; CCOOek eta UGTk onetsi zuten akordio hau, eta bere helburua inoiz egin den pentsio murrizketarik handiena janztea zen. Erretiratzeko adina bi urte atzeratzen da, 67 urteraino; erretiro aurreratua eragotzi eta zigortu egiten da, eta etorkizuneko pentsioak hainbat eratan murrizten dira; gainera, aurrerago are murrizketa gehiago egiteko konpromisoa ere hartzen da.

Gobernu espainolak argi esan du: *“beharrezko diren erabakiak hartzen jarraituko dugu, gogorrak izanagatik ere, finantza-merkatuen aurrean sinesgarri izan ahal izateko”*. Zaila da

gertatzen ari dena hain hitz gutxitan laburbiltzea. CCOOek eta UGTk baiezkua esan diote honi. Espainiako gobernuaren bidelagun izatea erabaki dute, edozein koloretakoa dela ere, krisia administratzeko aldebakarreko politika horretan. Orain arte ezarritako politika antisozialak babestea erabaki dute, baita etortzeaz daudenak ere. Eta jendearen interesen eta ongizatearen aldeko konpromisoa duen sindikalismoaren rola baztertu egiten dute. Horixe da sinatutako itunaren esanahia.

Hortaz, langile-klasearen bizi- eta lan-baldintzen aurkako eraso bat dugu hau, aurrez ikusi gabekoa -kapitalaren etekinak handitze aldera-; erasoak jopuntuan ditu ere ongizate-estatuko osagaiak eta zerbitzu publikoak, zeinak hain zuzen klase xeheen duintasuna bermatzeko sortu baitziren. Murrizte eta pribatizazio politiken oinarrian ontzat ematen da kapitalaren arduragabekeria soziala eta guztia negozio pribaturako objektu bihurtzeko bere borondatea. ELArentzat, jasanezinak ez dira eskubideak eta gizarte-ongizatea, baizik kapitalismo honen gosea eta dirua pilatzeko grina, mugarik ezagutzen ez duena.

1

Soldaten aurkako erasoari aurre egin

Ehizera atera bailiran, orain erabaki dute soldatak zeharo murriztu behar direla, epe luzerako. Patronalak, Angela Merkel kantziler alemanak, Espainiako Bankuko gobernadoreak, Zapaterok berak; eta gurean Gemma Zabaletak, José Luis Bilbaok, Nuria Lopez de Gereñuk, Jose Maria Roigek edo Alvaro Mirandak, argi asko azaldu dute zer nahi duten: krisia eta langabeziari zaion beldurra baliatu egin behar da langile-klasea hezitzeko, eta horrela areago pobretzeko. Euren helburua transferentzia erraldoi bat egitea da, lan-errentetatik enpresen etekinetera.

Hitzaldi horrek egia ezkutatzen du, propio eta era interesatuan:

- Aberastasunaren banaketan gero eta desberdintasun handiagoa dago. Lan-errentek behera egin dute, nabarmen, eta aldiz, enpresen eta kapitalaren errentak hazi egin dira. 1985an lan-errentak BPGaren %55,3 ziren, baina 2009an portzentaje hori %50 besterik ez zen. Honek esan nahi du Hego Euskal Herrian urtero 4.000 milioi euro doazela enpresa- eta kapital-errentetara.
- 2010eko urtariletik irailera bitartean enpresen etekinak %9,7 hazi ziren, Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralaren arabera, eta lan-kostuak %1,5 jaitsi ziren. Hots, gezurra da krisiak guztiei kalte bera egiten dienik. Soldaten gainbehera luzatu nahi dute enpresen irabaziak handiagoak izan daitezen.
- Hego Euskal Herriko soldatak Europako Batasuneko estaturik garatuenetakoak baino askoz ere apalagoak dira. Adibidez, Belgikan %36,8 handiagoak dira, Alemanian, %39,2, Frantzia, %12,9, Holandan, %45,1, Suedian, %26,4% eta Danimarkan, %85. Beraz, lehiatzeko arazoren bat badago, berau ez dute soldatek eragin.

Datuok ikusirik, ELAk erabaki du soldatak erreibindikatzeko ez ezik badagoela lanaldiaren murrizketa eskatzeko aukera; biak ere, aberastasuna eta enplegua banatzeko funtsezko puntuak. Sindikalismoak honetarako bere argudioak indartu behar ditu, langile-klasearen artean funtzio pedagogiko zabala garatu, eta kontraerasoari ekin behar dio.

Soldatak defenditzea bidezkoa da. Aurreko datuek azaltzen dute dagoen aukera. Soldatak defenditzea krisiarentzako irtenbide solidarioagoaren osagai bat da, baita langile askok bizi duen egoera hain eskasa delako ere. Kontrakoa sinestarazi nahi diguten arren, patronalak poltsikoratzen du gehienbat produktibitatearen hazkundera. Hego Euskal Herriko produktibitate laborala enplegua duen pertsona bakoitzeko Europako lehen postuetan dago. Eustaten arabera, EAEn batez besteko produktibitatea europarra baino %32,4 handiagoa da; soilik Luxemburg eta Irlanda daude gainetik. EAeko produktibitatea Frantziakoa baino 12 puntu gorago dago, espainiar estatukoa baino 22 gorago eta Alemaniakoa baino 28 gorago.

Horrenbestez, soldatak errebindikatzea zilegi da eta aukera badago. Klase-sindikalismoak ez du inoiz galdu behar aberastasunaren banaketa dela iparra, eta hain zuzen, baita krisian ere, soldatak defenditu behar dira, eta igoerak iragan inflazioa baino handiagoak izatea.

Soldata-mailak ez du lanpostu bat ere suntsitu. Soldatek ez daukate zerikusirik enpleguen galerarekin, ezta enpresak bideragarri izatearekin ere. Erabilera interesatua eginez, “soldata moderazioa edo jaitsiera” enpleguaren defentsarekin lotzen dute, baina hori ez da horrela. Itxi diren edo langileak kaleratu dituzten enpresen arazoak hainbat faktoreren ondorio dira: finantziario eza (eta kreditua oraindik ez da ematen), kontsumoaren jaitsiera, produktu edo makina zaharkituak, enpresaren kudeaketa txarra, inbertsioak deslekutzeko erabakiak... Enpleguaren galera soldatei egozteak gezurra ez ezik onartu ezineko xantaia morala da.

Soldatak defenditzea beharrezkoa eta eragingarria da; jaisteak, berriz, enplegua suntsitzen du. Soldatak igotzea beharrezkoa da. Izan ere, horrela ekonomia erreala indartzen baita, eta ez espekulatiboa. Soldaten murrizketak –are gehiago, nahi duten moduan, orokorra bada– eskaria deprimitu eta enplegua suntsitzen du; enpresen produkzio aukerak hondatzen ditu, eta inbertsio beharrianak gutxitu. Soldatak ez dira kostuaren zati bat soilik, ekonomia berreskuratzeko funtsezko oinarria baizik. Ekonomia espekulatiboari indarra kentzen dion oro, betiere ekonomia errealearen mesedetan bada, lagungarri da irtenbide justuago baterako; are gehiago kontutan izanik enpresen etekinek izan duten joera espekulatiboa. Nabarmena da hila amaitzeko zailtasuna dutenek –soldatapeko langileen %35ak 1.100 euro ere ez du irabazten– ez dituztela soldata igoerak espekulaziora bideratzen, ahal duten moduan hileroko gastuak ordaintzera baizik.

“Lehiakorrago” izateko apustua prekariatatean edo soldatak “moderatzean/murriztean” oinarrituta ekonomi- eta enpresa-eredu jakin bat finkatzen da, diru publikoak lagundua eta bizkarroia. Gainera, beti topa daiteke soldatetan apalago dagoen adibideren bat. Baina lehia horrek ez du amairik. Sistema honek eskubide laboralak zein sozialak deuseztatzen ditu.

Inflazioaren zergati nagusia enpresen etekinak dira, ez soldatak. Soldata moderazioa eskatzen dutenek, inflazioari eusteko beharrezkoa dela argudiatuz, ezkutatu egiten dute berez soldata igoerek ez dutela inflazioa eragiten. Azterketa ofizialek adierazten dute prezioen igoera batik bat etekinen hazkundeak eragiten duela, ez lan-kostuek.

Prestazioak murriztea edo lortzeko modua eragozteak estrategia beraren baitan dago. Gizarte-prestazioen maila soldata-mailarekin zuzen-zuzenean lotuta dago. Politika honen helburuetako bat prestazio horiek murriztu, mugatu edo kentzea da, jendea zabor-kontratuak onartzera makurrarazteko. Zenbaitek horrela makilatu nahi du langabeziaren estatistika.

Bada, kapitalaren eta enpresa handien estrategiarako oso egokia da prestatzen ari diren negoziario kolektiboaren erreforma, urtez urte estatuan sinatzen dituzten Negoziario Kolektiboko Esparru-Akordioak bezalaxe. Ez dugu nahi miseria-egoera soldatetan oinarritutako gizarte-eredurik.

2

Negoziario Kolektiboaren erreforma:

Hego Euskal Herrian negoziatzeko eskubidearen aurkako eraso

Lehenago salatu genuenez, irailean onartu zen erreforma laboralarekin legean jaso zen gobernu espainolak alde bakarretik negoziario kolektiboa erreformatzeko legea egin behar zuela, baldin eta 2011ko martxoaren 19rako espainiar patronala eta sindikatuak ados jartzen ez baziren. Itun Sozial eta Ekonomikoak (ISE) alde biko akordio bat biltzen du, CEOE, CEPYME, CCOO eta UGTren artekoa, “negoziario kolektiboa erreformatzeko oinarritzeko irizpide”ei buruz; honetan agintzen dute 2011ko martxoaren 19a baino lehenago akordio bat lortuko dutela. Hortaz, datozen asteak erabakigarriak izango dira.

Eduki oso larriak ari dira jorratzen. ISEk hainbat lan-ildo aipatzen du, eta hauek berretsiz gero, eskubideak asko murriztuko lirateke:

- **Negoiazio kolektibo zentralizatua** inposatzea, estatu mailako sektore- edo enpresa-hitzarmenen bitartez. Horrela negoziazio kolektiboaren egungo arauak goitik behera aldatuko lirateke, hain zuzen Langileen Estatutuko 83. eta 84. artikulak, hauek non eta zer negoziatzen den erabakitzeke aukera ematen baitute. Hori gauzatuz gero Hego Euskal Herriko edozen lurralde-esparrutan negoziazio ahalmena galaraziko luke, lurralde mailako sektore-hitzarmenak desagertzeraino. Valeriano Gomez Lan Ministroak argi esan du: “Hitzarmen probintzialak desagertzen joatea nahi dugu. Estatu mailakoak gailendu beharko lirateke”.
- **Hitzarmenen ultraaktibitatearen izaera aldatu** (iraunaldia amaituta ere hitzarmena aplikatzen jarraitzeko bermea, beste batek ordezkatzeko duen arte). Hau desagertu edo mugatuz gero atzerakada gogorra litzateke, negoziatzeko aukera murriztuko lukeena.
- **Greba-eskubidea mugatzea.** Negoiazioa zentralizatuta, greba egiteko aukerak - negoziazio zentralizatuan ezarritako edukien aurka- mugatuta leudeke, Espainiako legeek legez kanpokotzat jotzen baitute indarrean den hitzarmen baten kontrako greba.
- **Enpresek erabakitako malgutasuna areagotzea, hitzarmena aplikatzeko salbuespenak erraztea eta lan-harremanak indibidualizatzea.** ISEa sinatu dutenek aitortzen dute malgutasun laborala ez dela nahikoa, eta horrenbestez erreforma norabide horretan joango da. Gainera, enpresei erraztasun gehiago eman nahi zaie soldata eta beste gaiei dagokienez hitzarmena betetzera behartuta egon ez daitezen. Lan-harremanak indibidualizatzeko urrats gehiago ere iragarri dituzte, hitzarmen kolektiboaren eragin orokorra bertan behera utziz edo mugatuz.

Erabakion guztion xedea langileek enpresetan duten indarra ahultzea da, eta patronalari botere handiagoa ematea; negoziazioa gero eta gehiago urruntzen dute, eredu zentralizatu, burokratizatu eta langileen bat ere partaidetzarik gabekoa ezarriz.

Estatuko sektore-hitzarmenari -honi eman nahi zaio lehentasuna- ‘oinarrizko’ izaera ematen diote. Esparru horretan erabakiko litzateke dena, beste edozein esparrutan zer egin daitekeen, eta zer ez, tokian tokiko gehiengo sindikala edozein dela ere. Eredu honekin UGTri eta CCOOei monopolio sindikala aitortu nahi zaie (bertikalismo berria); monopolio honek, ordea, ordain latza ezartzen digu: langileen txirotze orokorra.

Guztiok dakigu zertaz ari garen: Estatuko sektore mailako negoziazioa eta lan-baldintza prekarioak uztarri berean doaz. Estatu-esparruak hori erraztuko luke. Patronalak badaki -eta Hego Euskal Herrikoa ez dago aparte- negoziazio kolektiboa erreibindikazio-dinamikarik gabeko esparru batera eramango luketela. Negoiazio kolektiboaren auzia ez da soilik hitzarmenek ematen duten “estaldura”; hots, zenbat langile “babesten” dituen. Ez, kontua da hitzarmenetan zein lan-baldintza arautzen diren. Adibidez, hitzarmen estatalak 750 euroko soldatekin ixtea eta beste esparruetan miseria hori hobetzeko negoziazio aukera galaraztea burugabekeria sindikal bat da.

Aski da ondoko koadroan jasotako datuak aztertzea: Hego Euskal Herriko sektore-hitzarmen batzutako soldatak eta lanaldia alderatzen ditu sektore bereko estatu mailako (edo Madrilgo) hitzarmenetakoekin. Hemen soldatak Estatu espainolean baino askoz ere handiagoak dira eta lanaldia, dezente laburragoa.

Sektore– Hitzarmena	Kategoria	Lurraldea	Soldata (eurotan)	Lanaldia (orduak)	Lurraldea	Soldata (eurotan)	Lanaldia (orduak)
Adinekoen Egoitzak	Laguntzailea	Estatua	13.349	1.792	Gipuzkoa	18.592	1.660
Etxeko Laguntza	Laguntzailea	Estatua	12.554	1.755	Bizkaia	22.664	1.586
Ehunen Merkataritza	Saltzailea	Madril	13.331	1.784	Araba	15.000	1.748
Metala	Peoia	Madril	14.216	1.756	Gipuzkoa	20.985	1.697
Zurgintza Industria	1. mailako Ofiziala	Estatua	13.100	1.752	Nafarroa	19.388	1.732

Aipa daitezke ere estatu mailako enpresa-hitzarmenak, zeinen xedea hitzarmen probintzialen aplikazioa saihestea baita, hauek soldatapeko langileentzat baldintza askoz hobeak ezartzen dituztelako.

Patronala, CCOO eta UGT bat datoz ikusmolde zentralizatuan. Patronalak bere etekinak handitu nahi ditu. Eta sindikatu espainolek beren mesedetan egindako lege baten bitartez urtetan amestutako ordezkartzaren monopolioa lortu nahi dute. Horregatik ez die axola peajea ordaintzea, langile-klasearen pobretzea alegia.

Euskal erabaki esparruaren aurkako erasoa

Erreforma hau joera antidemokratiko baten ondorio ere bada, euskal esparruko gehiengo sindikalen eragina ukatu nahi baitu. Helburua euskal sindikatuen negoziatzeko ahalmena eta eragina mugatzea da, baina ez langileen erabakiz, estatuko legea horretarako erabiliz baizik. ELAk erabaki honen izaera politikoa nabarmendu nahi du eta berriro egiaztatzen du estatu mailako legeen menpeko garena funtsezko gai batean, gure lan-baldintzei buruz erabakitzerakoan.

Geure erabaki esparruaren aurkako erasoa dugu hau, langileon aurkakoa. ELAk arbuiatu egiten du negoziazio kolektiboari eman nahi zaion “oinarrizko” izaera –estatuan aplikazio orokorra ezartzen duena–, hartara langileok beren botoaz erabaki dutena gauzatzea galarazteko, hots, gure herrian negoziatzea. LOAPA sindikal bat ezarri nahi digute, eta honek eragin sindikal, sozial zein politiko oso larria du.

Ikusteko dago gobernuari erreforma hau gauzatzeko zein alderdi politikok emango dioten babesa. Aurrekariak ikusita, ezin dugu lasai egon. Gaur arte murrizteko erabaki guztiek –bat bera ere hutsegina gabe– EAJren laguntza izan dute; alderdi honek bat egin du enpresari-munduaren ikuspegi, balio eta exijentziekin; eta enpresari-mundu horrek –zerga kontuan foru–ogasunei egiten dizkien eskarietan izan ezik– bere interesak Espainian kokatu ditu.

Arlo soziolaboralean eskumen gabezia ageri zuten Estatutuak eta Foru-Hobekuntzak, eta estatuak areago kimatu ditu bide politiko zein judizialekin; honekin batera, inboluzio soziala dakarten politikak ezartzearen krisia baliatzeko borondateak erreakzio politiko irmo bat eragin behar du ELAren iritziz euskal erabaki esparruaren aldeko garena esaten dugunon aldetik.

Negoiazio kolektiboa da lan-harreman eta gizarte-babeseko euskal esparrutik geratzen den ia osagai bakarra. Patronalak CCOOekin eta UGTekin elkar hartu izanak egin du hori posible. ELAk ez luke ulertuko –patronalak nahi duen bideari jarraiki– ukapen politikoa egin eta euskal alderdi politikoek lehentasunik ez ematea Hego Euskal Herrian negoziazio kolektiborako eskubidearen defentsari. Areago, arduragabekeria ezin larriagotzat joko genuke.

Euskal gehiengoek erabakitzen dutena eragingarri izan behar da. Funtsezko oinarri demokratiko hau esparru soziorabalean errespetatzea exijitzen dugu. Hori guztia esan nahi dugu lan-harreman eta gizarte-babeseko euskal esparruaren defentsa aipatzen dugunean.

Esparru sindikaletik, ELAk behin betiko diagnostikoa egin du Estatu-ikuspegian bat datozenek erabiltzen dituzten estrategiei eta egiten duten praktika politikoari buruz (CCOO eta UGT barne). Ondorioz, derrigorrezkoa da euskal erabaki esparruaren aldeko indarrok lankidetzara deitzea. Gure irudiko, ezinbesteko lankidetzara hori da modu bakarra euskal gehiengoek aldeztu ditugun posizioak merezi duten garapena iritsi dezaten eta estatu-itunak ezartzen dituen inboluzio asmoak gelditu arazteko.

3

Negoiazio kolektiboaren erronkari erantzun

Langile-klasea antolatu eta bere lan-baldintzak hobetzea da, gaur ere, sindikalismoaren izateko zergatirik behinena. Horregatik, negoziatio kolektiboa da lan-mundua duen tresnarik berezkoena aberastasunaren banaketa injustua aldatu eta prekarietate laboralari aurre egiteko. ELAk uste du hau dela negoziatio kolektiboaren funtsezko helburua.

Patronalak, aldiz, uste du negoziatio kolektiboak malgutasuna areagotzeko bitarteko izan behar duela: gobernuen laguntzaz erabaki du lehiakorago izateko prekarietatea hedatuko duela. Argi dago bi eredu artean, ugazabena eta gurea, gatazka dagoela. Patronalaren ereduak gobernuen babesa du, eta sindikalismoarenak, lana ondo egitekotan, esparru bakoitzean antolatzeke gauza izan gaitezkeen indar-erlazioa izango duela alde. Ez da beti bide bera izango, baina hauxe da lan munduaren eskarientzat erabilgarri izateke daukagun modu bakarra.

Bilakaerak, beraz, lan-harremanen eredu "amerikar" egitera bultzatzen gaitu: gizarte-babes gero eta eskasagoa, eta negoziatio kolektiboa lortu daitezkeen tokietan, hots, antolakunde sindikal nahikoa dagoen esparruetan. Hau guretzat berebiziko erronka da antolakuntzari dagokionez.

Aurkako egoera politiko eta ekonomiko honek dakartzan zailtasun objektiboak gorabehera, ELAk uste du -klaseko antolakunde sindikala den aldetik- bere botere sindikaleko baliabide nagusiak indartu behar dituela, besteak beste: afiliatio sindikala, bere militanteen motibatio eta kokapen ideologikoa, eta aliantzak, esku hartzeke tresnak eta bere errebindikatio-agenda lantzea. Kontu hauek lantzea eragotzike digun une politiko nahiz ekonomikorik ez dago. Horixe da, beraz, sindikatuaren ardura nagusia.

ELAk badaki negoziatio kolektiborako ezinbestekoa dela indar-erlazioa hobetzea...

- ELAk sindikalizatzeko ahalginak areagotu egingo ditu. Ezarri nahi diguten eredu hitzarmen izena merezi duten akordioak soilik leku jakin batzutan lortuko dira, hain zuzen akordioak posible egingo dituen antolakunde sindikala dagoen leketan.
- Asmo honekin bat, atal sindikalak indartzea sindikatuaren lehentasuna da. Hauek lan-agenda izan behar dituzte, horrela enpresek neutralizatzeko arriskua saihesteko. Atal sindikalak dira negoziatio kolektiboaren motorra.
- Negoziatio kolektiboan ELAk aurrerantzean ere lehentasuna honako edukiei emango die: soldatekin, diskriminazioarekin eta prekarietatearekin, enpleguarekin eta lanaldia murriztearekin lotuta dauden edukiak.
- Jakinik erronka handia dela, ELAk hitza ematen du eredu sindikal honetan bat datozen sindikatu ororekin lankidetzarako aukerak ahalik sakonen aztertuko dituela. Ekintza sindikal bateratua ezinbestekoa da, baina ez da sigla pilotze hutsarekin nahastu behar: adostasuna beharrezkoa da helburuei, esku hartzeke bitartekoei eta joko-arauen errespetuari dagokienez.

- ELAk lan egingo du mundu sindikaletik haratago aliantzak bilatzeko, bestelako gizarte-eredu bateko osagaietan bat gatozen erakunde eta mugimendu sozialekin.

Lan sindikalerako ez dago aurrez itxita dagoen esparrurik. Aipagarria da enpresa eta sektore askotako esperientzia aberatsa –horietako batzuk oso feminizatuak–, konpromiso sindikal arduratsuaren balio handiko eredua ematen baitigute. Esperientzia horiek mezu argi bat helarazi digute: edozein sektore, edozein enpresa, lidergo egokia topatuz gero eta langile jendearen arazoekin bat egiten badu, lan sindikal arrakastatsurako esparru izan daiteke. Sindikatua enpresan errealitate erabilgarria ez bada, ez da beste inon izango.